



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko apirilaren 26a

51. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza ekonomikoen prozedura edo deialdi bat bat taxutu dezan, argindarraren prezioaren igoera konpentsatzeko etxeko oxigenoterapia, etxeko dialisia edo elektrizitatez funtzionatzen duten bestelako gailu medikuak dituzten pertsoneri. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (3. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteen emantzipaziorako zeharkako estrategia bat abian jar dezan. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu 0-3 plataformaren erreibindikazioak eta 0-3 zikloa hezkuntza izaerarekin duintzearen alde egiten du. Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, eta Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du programa bat diseina dezan, Osasun Publikoaren Institutuaren bidez, gazteentzako osasun-aktiboen mapak prestatzea errazteko. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko analisiak egin ditzan, jakiteko ea Google eta Tobin tasak ezartzeak zer eragin izanen lukeen gure erkidegoan diru-bilketari begira. Mozioa erretiratzea (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Lesbianen Ikusgarritasunaren Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko bost kideak hautatzea (10. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2022ko maiatzaren 2ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Foru Lege

proposamena 2022 urtarrilaren 28ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-22/PRO-00001).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laguntza ekonomikoen prozedura edo deialdi bat bat taxutu dezan, argindarraren prezioaren igoera konpentsatzeko etxeko oxigenoterapia, etxeko dialisia edo elektrizitatez funtzionatzen duten bestelako gailu medikuak dituzten pertsoneri.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita laguntza ekonomikoen prozedura edo deialdi bat bat taxutu dezan, argindarraren prezioaren igoera konpentsatzeko etxeko oxigenoterapia, etxeko dialisia edo elektrizitatez funtzionatzen duten bestelako gailu medikuak dituzten pertsoneri (10-22/MOC-00041).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Gaixotasunak tratatzeko etxean ekipo elektrikoetara konektatzeko beharra duten pazienteak edota beren autonomia eta bizi kalitatea hobetzeko laguntza teknikoa behar dutenak nabarmen ari dira pairatzen argiaren prezioaren igoera osasun laguntzaren arloko oinarritzko beharrezan izaten ari den eragina.

Martxoan, argiaren prezioa MWh-ko 285 euro-raino igo da batez beste eta MWh-ko 545 euroko maximo historikoetara iritsi da, 2022ko martxoaren 7an, OCU-Kontsumitzaileen Erakunde Nazionalak emandako datuen arabera.

Prezioen igoera hori eragina izaten ari da, bereziki, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonengan, gastu horiei aurre egitea ezinbestekoa baitute ahalik eta autonomia eta bizi kalitate hoberenak izaten jarraitzeko tratamendu medikoak eta laguntza teknikoak mantentzeko.

Paziente horien artean daude arnas-gaixotasunak eta gaixotasun neurologikoak dituzten eta etxean oxigenoterapia behar duten pazienteak, giltzurrun-gaixotasuna dituzten eta etxean dialisia egiten dutenak, edota bestelako patologiak izateagatik laguntza tekniko desberdinak behar dituztenak, hala nola arnasmailuak, gurgildun aulki elektrikoak, ohe elektrikoak eta abar.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, gehienez ere hiru hilabeteko epean laguntza ekonomikoen prozedura edo deialdi bat bat taxutu dezan, argindarraren prezioaren igoera konpentsatzeko etxeko oxigenoterapia, etxeko dialisia edo elektrizitatez funtzionatzen duten bestelako gailu medikuak dituzten eta barne gaixotasunen tratamendurako edo beren autonomia eta bizi kalitatea hobetzeko behar duten osasun arloko teknologian egin behar izaten duten gastua beren poltsikotik ordaindu behar duten pertsoneri.

Iruñean, 2022ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteen emantzipaziorako zeharkako estrategia bat abian jar dezan.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gazteen emantzipaziorako zeharkako estrategia bat abian jar dezan (10-22/MOC-00042).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita, gehienez ere hiru hilabeteko epean gazteen emantzipaziorako zeharkako estrategia bat abian jar dezan, helburuak, neurriak, kronograma eta aurrekontu-zuzkidura jasoko dituen.

Espainiako Gazteriaren Kontseiluko Gazteriarren Emantzipazioaren Behatokiak egindako azken txostenean –2021eko lehenbiziko sei hilekoari dagokio– adierazten denez, 30 urtera bitarteko nafar gazteen % 13,8 bakarrik daude emantzipaturik: 1998ra jo behar dugu hain datu baxua aurkitzeko, nazioko batez bestekoaren azpitikoa, han % 14,3koa baita. Nafarroa 14.a da 17 autonomia erkidegoen artean; 2,9 puntu soilik azkenaren gainetik (Gaztela-Mantxa, % 10,9).

Datu horren bilakaera aztertzen badugu, Nafarroako gazteen emantzipazio-tasa %23,3koa zen 2015eko bigarren hiruhilekoan, UPNk Nafarroako Gobernua utzi zuenean; hau da, 9,5 puntu han-

diagoa. Gainera, legegintzaldi hau hasi zenetik gazteen emantzipazio-tasa 7,6 puntu jaitsi da.

Bestalde, Nafarroako Gazteriaren Institutuak eginiko Nafarroako gazteen emantzipazioari buruzko 2021eko inkestak dioenez, 30 urtera bitarteko nafar gazteen % 29,8 bakarrik daude emantzipaturik: datu kezagarria, zalantzarik gabe.

Inkesta horretan islatzen denez, “ekonomikoki burujabea” izatea ezinbesteko baldintza da emantzipatu ahal izateko; hain zuzen alderdi hori erabakigarria da herritarren % 83,8rentzat.

Nafarroako gazteen kaudimen ekonomikoa oso urria da, eta horrek zerikusi handia du lan-egonkortasun handiarekin, behin-behinekotasunaren tasa handiarekin (% 55,6) eta kontratuen partzialtasunarekin. Zenbat eta diru-sarrera txikiagoak jaso, orduan eta urriagoak etxebizitza bat lortzeko aukerak. 2021ean, gazte baten urteko lansari garbia 18.820,88 eurokoa izan zen.

Beste datu kezagarri bat: pandemiaren aurretik jada populazio inaktiboaren kopurua goraka ari zen egiten etengabe: gero eta gazte gehiagok atzeratzen du lana bilatzea, eta ikasten jarraitzen dute lan aukera hobeen esperotan. Nafarroan, 16 eta 29 urte bitarteko gazteen % 69,5 inaktiboa da lanaren ikuspuntutik.

2019 eta 2021 artean jaitsi egin da ekonomikoki burujabeak diren gazteen ehunekoa (% 39,2 2019an eta % 35,5 2021ean), eta areagotu egin da beste pertsona batzuen laguntza behar duten gazteen kopurua. Soilik % 35,5 bizi da soilik bere diru-sarreretatik (% 39,2 2019an).

Alokairua da aukera nagusia Nafarroan beren kasa bizi diren gazteen artean; hala, % 58,1 alokatuta bizi da, % 29,3k jabetza aukeratu du eta % 12,6 utzitako etxebizitza batean bizi da.

Gazte gehien-gehientzat, alokairua behin-behineko aukera da. % 16,8k besterik ez du planteatzen epe luzera alokatuta bizi. Erdiak gutxi gorabehera (% 49,8) uste du 2 eta 5 urterako neurria izanen dela, eta % 31k uste du 2 urte baino gutxiago egonen dela alokatuta. Horrenbestez, behin-behineko konponbidea da, etxebizitza bat erosteko egonkortasun pertsonal eta ekonomiko handiagoa izan arte. Alokairua aukeratzeko arrazoi nagusia ekonomikoa da.

Laburbilduz, enplegu egonkorra eta emantzipazioa dira Nafarroako gazteen arazo nagusiak eta elkarrekin estu lotuta daude. Orain arte abian jarritako neurriak, alokairurako laguntzetan oinarritzen direnak nagusiki, ez dira nahikoak, ikusirik datu kaxkarrak, eta uste dugu gazteen emantzipazioaren arazoari modu serio, zehatz eta zeharkakoan aurre egitea.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du, gehienez ere hiru hilabeteko epean gazteen emantzipaziorako zeharkako estrategia bat abian jar dezan, helburuak, neurriak, kronograma eta aurrekontu-zuzkidura jasoko dituen.

Iruñean, 2022ko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu 0-3 plataformaren erreibindikazioak eta 0-3 zikloa hezkuntza izaerarekin duintzearen alde egiten du.

GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, ETA PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, eta Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baititu 0-3 plataformaren erreibindikazioak eta 0-3 zikloa hezkuntza izaerarekin duintzearen alde egiten baitu (10-22/MOC-00043).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dugun talde parlamentariook, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dugu, 2022ko apirilaren 28ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

0-3 zikloa hezkuntza-ziklo bat da, inongo zalantzarik gabe, baina haren kudeaketaren ezaugarriak, gehienbat udalen ardurapekoa baita, eta

langileen lan baldintzak desberdinak dira Hezkuntza Departamentuak bere gain hartzen dituen gainerako hezkuntza-ziklo eta -etapen aldean.

Azken urteotan urrats nabarmenak egin dira familiek ordaindu beharreko tarifen murrizketan, eta 2016tik aurrera areagotu egin da aurrekontuetan ziklo horretarako jasotako partida, aurreko urteetako murrizketen ondotik. Halaber, Hezkuntza Departamentuan berriazko zerbitzu bat sortu da eta aurreikusten da laster Nafarroako Gobernuaren zazpi haur-eskolen titulartasuna Eskubide Sozialetako Departamentutik Hezkuntzara aldatuko dela.

Hala ere, dispertsio handiko zikloa izaten jarraitzen du, oso ezaugarri desberdinak dituen, eta oraindik bide luzea dago egiteko haur-eskolen doakotasunari, unibertsaltasunari eta duintzeari begira, lan baldintzei, ratioen jaitzierari, hizkuntza-eredua aukeratzeari eta abarri dagokienez.

Pasa den legegintzaldian, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak lantalde bat eratu zuen 0-3 zikloko eskolen egoera aztertzeke, eta ateratako ondorioak Hezkuntza Departamentuari helarazi zizkieten. Ondorio horien artean nabarmentzen da zerbitzua finantzatzeko eta kudeatzeko ereduak doitzeko beharra.

Horri lotuta, duela gutxi lantalde bat osatu da udal ordezkariarekin 0-3 zerbitzuarekin zerikusia duten gaiak aztertzeke.

Duela gutxi Transferentzia Arrunten Funtsaren banaketa arautzeko onetsi den Foru Legean 0-3

zikloa funtsaren banaketaren apartatu bateko indizea da, eta finantza-askitasunari buruzko aldagaia kanpoan geratzen da.

Izan ere, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen martxoaren 22ko 6/2022 Foru Legeak bere xedapen gehigarri bakarrean jasotzen du beharrezkoa dela toki erakundeen eskumen banaketa argitzea, bertan aurreikusirik, halaber, toki erakundeei esleitzen zaizkien eskumenetarako finantza nahikotasuna bermatzeko beharrezkoak diren baliabideen zuzkidura.

Hau da, bada funtsa banatzeko irizpide bat moduluak-zerbitzuak funtsa izeneko apartatuaren barruan, baina zerbitzuaren garapenerako finantzaketa Hezkuntza Departamentuak eta toki entitateek sinatzen dituzten hitzarmenen arabera izanen dira. Errealitatea da moduluen finantzaketa-sistema ez dela nahikoa eta ez datorrela bat zerbitzuaren egiazko kostuarekin; izan ere, udalek beren gain hartu behar izaten dituzte modulutik kanpo geratzen diren gainkostu guztiak (bajen estaldura, antzinatasuna, errefortzu gehienak...). Egoera horrek bereziki zigortzen ditu kudeaketa publiko zuzenaren alde egiten duten udalak. Horrenbestez, Hezkuntzari dagokio moduluak egokitu eta finantzaketa handitzea.

Gauzak horrela, Nafarroako 0-3 Plataforma ekimen ugari ari da egiten, zerbitzuari buruzko erreibindikazio desberdinak biltzen dituztenak, hala nola ratioak, finantzaketa-moduluak, kudeaketa publikoa, 2 urteko gelekina zikloa ez apurtzea, lan baldintzak, eta abar.

Horiek horrela, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten ditu 0-3 Plataformaren erreibindikazioak eta 0-3 zikloa hezkuntza izaerarekin duintzearen alde egiten du, kalitatera, unibertsaltasunera, doakotasunera eta ziklo horren lan baldintzak hobetzera bideratutako hezkuntza-ziklo gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren ekimenarekin eta premiatzen du lan-mahai bat sor dadin udalekin, Nafarroako Gobernuarekin, sindikatuekin, Nafarroako Parlamentuan ordezkartza duten taldeekin eta 0-3 Plataformarekin, eta bertan parte hartzeko eta zikloa hobetzeko ekarpenak egiteko konpromisoa agertzen du.

3. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du, moduluen kalkulua egiazko kostua aintzat hartuta doitu dezan udalek beren gain hartu beharreko zenbatekoa orekatzeko, bereziki haur-eskolen zuzeneko kudeaketa publikoa egiten dutenena, eta finantzaketa-sistema egokia eta egonkorra bermatzeko, eskumenaren erabateko argitzea zehazten den bitartean.

4. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du, garaiz eta forman bete ditzan hezkuntza-ziklo horri buruz sinatutako akordio guztiak.

Iruñean, 2022ko apirilaren 21ean

Foru parlamentariak: Maria Solana, Bakartxo Ruiz eta Marisa De Simón

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du programa bat diseina dezan, Osasun Publikoaren Institutuaren bidez, gazteentzako osasun-aktiboen mapak prestatzea errazteko.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu programa bat diseina dezan, Osasun Publikoaren Institutuaren bidez, gazteentzako osasun-aktiboen mapak prestatzea errazteko (10-22/MOC-00044).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, apirilaren 28ko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Osasun mentalaren arazoak datorren pandemia izan daitezkeela ikusirik eta gateei begiratzen badiegu, aurkituko dugu, "Estado Mundial de la Infancia: En Mi Mente" txostenak adierazten duen moduan, Europako 15etik 19 urtera bitarteko bost haurretatik ia batek, osasun mentaleko arazo bat duela (neskatilen kasuan % 16 dira).

Europar 10etik 19 urtera bitarteko bederatzi milioi nerabe bizi dira osasun mentaleko arazo batekin: ansietatea eta depresioa kasu guztien erdia baino gehiago dira. Gaur egun, suizidioa da Europako gazten artean heriotza eregiten duten arrazoiak bigarrena. 10 etik 19 urtera bitarteko mutilen artean era horretan hiltzen direnen tasa neskatilenen bikoitza da. Bakarrik trafikoa istripuek ekartzen dute 15etik 19 urtera bitarteko neska-mutilen bizitza gehiago galtzea.

Europar osasunari buruzko azken inkestak (pandemia baino lehenagokoa, 2020ko hasierakoa) arazo larria erakusten zuen: Espainiarren artean 1,7 milioi ziren osasun mentaleko eta depresio moderatuaren eta larriaren arteko arazoak zituztenak; haietatik 250.000 nerabeak ziren.

Nafarroako Osasun Mentalaren Sareak aurtengo lehen seihilekoan 30 urtetik beheko 2.783 paziente artatu ditu, guztira, lehen kontsultan, 2019ko aldi berean baino % 20,4 gehiago, orduan 2.313 pertsonak behar izan baitzuten osasun arreta hori.

Eskaria handitzen da "ondoez emozional handiagoa dagoelako" populazioaren tarte horretan. Oinarriko nahasmendu larriak mantendu egin dira, baina nahasmendu gehiago egon dira aldarrean, ansietatearen inguruan eta ondoez emozionalarekin lotuak. Areagotu egin dira koadro emozionalak eta moldatzeko beharrei lotuak, ziurgabetasun handiko egoerei, estresaren eta ansietatearen kudeaketari, heldutasunera igarotzeko etapei eta abarri begira.

Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) berretsi zuen hori larritu egin zela pandemian: elkarrizketatutakoaren artean "% 30ek adierazi zuen izu-atakeak pairatu izana, % 25ek bazterketa soziala sentitu izana eta % 55ek kezka ezin kontrolatu izana".

Espainiako Osasun Mentaleko Konfederazioaren arabera pandemian depresioa jasan dutenen portzentajea hiru aldiz handiagoa izan da errenta baxua dutenen artean altua dutenen artean baino. Lehen ohartarazpena izan zen, gure gazteen osasun mentalaren arazoa eskuetatik joaten ziztaigula adierazterakoan.

Zifra horiek, oro har, guztiok ukitzen gaituen astindura soziala da, bereziki gazteen osasun mental txarraren epidemia horrekin. Nolako familia, eskola, bizikidetzak, gizarteak... ari gara eskaintzen?

Ez dugu ahaztu behar, 2017ko Osasun Mentalaren Inkesta Nazionalaren emaitzetan ikusi den bezala, maila sozioekonomikoak osasun mentalaren egoera baldintzatzen duela neurri handian. Etorrinen jatorriko haur eta nerabeak, batez

beste, familia pobregoetan bizi ohi dira. Inkestako errenta baxuenetan % 12 etorkinen jatorriko familiak dira: errenta altuenetan, ordea, % 5 baino ez dira.

Zifrak ikaragarriak dira eta osasun arloko zerbitzuek erantzun egokia eman behar dute, baina ezin gara horretan gelditu, ez delako erantzun indibidual soila izan behar, arrazoiek beste esparru bat dutelako.

Arrazoiek esparru sozioekonomiko orokorrak dituzte, akademikoak eta eskolakoak, lan munduak, langabezia, pandemiaren egoera, nerabeen eta gazteen aldaketak, dituzten ezaugarri bereziekin (bikotea, familia, gorputzaren onarpena eta sexu orientazioa...)

Aurkako egoeren multzoa handiagoa bada aldeko elementuak eta babeseko egoerak baino, balantza makurtu eginen da eta egoneza gaixotasun bihurtuko da, larri izateraino eta are suizidioraino iritsita ere

Osasun arloko aktiboak indartu eta kontziente egitea ekarpen nabarmena izan daiteke osasuna mantentzeko, are hobetzeko ere, egoera zailetan.

Osasunerako aktiboak ditugu "faktoreak edo baliabideak, pertsona, talde, komunitate, populazio, sistema sozial eta erakundeen trebeziak hobetzen dituztenak, osasuna eta ongizatea mantentze aldera eta osasun arloan desberdintasunak murrizte aldera". Aktibo horien inbentarioak eta haien arteko loturek ahalbidetzen dute aktiboen mapak sortzea, komunitate osoaren indargunak aurkezten dituztenak.

Osasunaren sustapenean badakigu osasun arloko aktiboak identifikatzea eta indartzea gil-

tzarria izan daitekeela zailtasunak gainditu eta gaitasunak eta osasuna hobetzeko, depresioan edo beste patologia batzuetan erori beharrean.

Mapak egitea eta babeseko elementuak, osasun arloko aktiboak, kontziente bihurtzea lehenbiziko urratsa da politika positiboak sustatu eta garatzeko. Eta hori mobilizazio eta motibaziorako elementu garrantzitsua da inplikaturako pertsonekin egiten denean, kasu honetan gazteekin, aukera ekartzen duelako haiek jokabide proposatzailea izateko eta eragiten dieten osasun arloko determinatzaile batzuk aldatzeko.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak honakoetara premia-tzen du Nafarroako Gobernuak:

1.- Osasun Publikoaren Institutuaren bidez programa bat diseinatzea gazteentzako osasun-aktiboen mapak prestatzea errazteko.

2.- Nafarroako Gazteriaren Institutuari helaraztea programa hori garatzeko beharko duten laguntza tekniko eta profesionala.

3.- Toki entitateekin lankidetzan aritzea herri bakoitzean tresna horiek garatu ahal izateko.

4.- Sistemaren beraren mapak prestatzea: hezkuntza, osasuna, gizarte kontuak, berdintasuna... osasuna indartzeko gaitasun hori politikak sendotzeko.

5.- Konpromisoa hartzea atzematen diren osasun arloko aktiboak garatzeko proposamenak sustatu eta garatzeko.

Iruñean, 2022ko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko analisiak egin ditzan, jakiteko ea Google eta Tobin tasak ezartzeak zer eragin izanen lukeen gure erkidegoan diru-bilketari begira.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Mikel Buil García jaunak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko analisiak egin ditzan, jakiteko ea Google eta Tobin tasak ezar-

tzeak zer eragin izanen lukeen gure erkidegoan diru-bilketari begira, eta 2020ko martxoaren 6ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/MOC-00038).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Lesbianen Ikusgarritasunaren Egunaren ospakizunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak bat egiten du kolektiboaren errebindikazioekin eta honen alde egiten du:

1. Lesbofobiaren prebentziorako sentsibilizazioa, prestakuntza eta ikerketa.

2. Ikastetxeetan berariazko programak ezartzea, sexu- eta afektibitate- nahiz genero-bestelakotasuna aintzat hartuko dutenak, errealitatea eta emakume lesbianen arazoak ikusarazteko.

3. Arreta mediko eta ginekologikorako berariazko protokoloak ezartzea, emakume lesbianeiei egokituak.

4. Emakume lesbianen asilo-eskubidea begiestea, jazarriak diren herrialdeetakoak badira, aintzat hartuta bereziki beren sexu-orientazioagatik nahiz -identitateagatik pairatzen dituzten askotariko indarkeriak.

5. Emakume lesbianen errekonozimendu aktiboa eta ikusbidean jartzea, sentsibilizazio kanpainen bidez eta hedabide publikoetan, foru lurralde osoan”. (10-22/DEC-00022).

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko bost kideak hautatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Zenbait fundazioen zuzendaritza organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legearen 3. artikulua eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren Estatutuen 11. artikulua arabera, Patronatuak bederatzi kide ditu, horietako bost Nafarroako Parlamentuak hautatu beharrekoak.

Legebiltzarreko Erregelamenduan ez da horri buruzko prozedurarik aurreikusten; beraz, Erregelamendu horren 37.1.9 artikuluan ezarritakoaren babesean, bidezkoa da Mahaiak, Eledunen Batzarrarekin bat, arauak onetsi ditzan Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuan Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren bost kideen hautapenari buruzkoak.

Horretarako, Legebiltzarreko legelari nagusiak arau-proposamen bat prestatu du, Estatutuetan jasotzen diren xedapenekin bat.

Hori horrela, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37.1.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako Parlamentuak izendatzekoak diren Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko bost kideak hautatzeko prozesua hastea. (10-22/ELC-00004).

Bigarrena.- Honako arau hauek onestea:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko bost kide hautatuko ditu.

2. Hautagaiek honako baldintza hauek guztiak beteko dituzte:

a) Adinez nagusia izan eta ezgaitasun judizialik ez izatea.

b) Desgaitua ez egotea kargu edo eginkizun publikoak betetzeko edo ondasunak administratzeko.

c) Ospe profesional egiaztatua, jakintza eta esperientzia izatea fundazioaren xedeekin zerikusia duten arloetakoren batean: soziala, kulturala, eta ekonomiko-finantzarioa.

Ulertuko da hautagaiek beharreko ospe profesionala, jakintza eta esperientzia dutela baldin eta haien jokabide pertsonalak zein profesionalak zalantzarik gabe erakusten badu entitatearen arduraz eta zuhurtziaz kudeatzeko gauza direla.

d) Hurrengo arauan jasotzen den debeku edo bateraezintasunetakoren baten aplikaziopean sarturik ez egotea.

3. Ezin izanen dira patronatuko kide hautatu edo izendatu egoera hauetan dauden pertsonak:

a) Desgaituak izan diren konkurtsopetakoak, desgaitasun-aldia amaitu ez den bitartean.

b) Kargu publikoetan aritzeko desgaitasun-aldia orokorra edo berezia dakarren zigorrera kondenatuak.

c) Administrazio publikoen zerbitzuko langileak, fundazioei dagozkien jarduerekin zuzeneko zerikusia duten eginkizunak baldin badituzte.

d) Karguetarako hautatzen dituzten unean edo karguetan aritu bitartean fundazioarekin zorrak dituztenak, mugaeguneratuak eta galdagarriak, edozein motatakoak.

e) Fundazioaren aurka auzitegietan edozein erreklamazio dutenak, salbu eta lan-arloko erreklamazioak edo patronatuko kideek beren karguak egikaritzeari buruz aurkezten dituztenak.

f) Lau merkataritza-sozietate edo entitate korporatibotan baino gehiagotan administrazio kontseiluko edo pareko organoko kide direnak. Salbuesten dira Fundazioaren ordezkari bezala edo hark hautaturik betetzen diren karguak.

g) Lotura dutenak fundazioarekin edo sozietateekin, baldin eta sozietate horietan fundazioak kapitalaren ehuneko hogeitik gorako partaidetza badu obra-, zerbitzu- nahiz hornidura-kontratuaren

bidez edo ordaindutako lanaren bidez. Bateriaezintasun hori halaber helduko da ezkontide eta horien parekoengana, eta halako sozietateetara non patronatu-kideak, zuzenean edo zeharka, ehuneko hogeitau gehiagoko partaidetza duen, berak bakarrik edo bere ezkontidearekin, aurreko nahiz ondoko ahaideekin batera, edo lehendakari, kontseilari delegatu edo horien pareko karguak betetzen dituzten.

h) Patronatukide, lehendakari, kontseilari, administratzaile, zuzendari, kudeatzaile, aholkulari edo antzeko kargu edo lanpostua dutenak banku entitateetan edo banku entitateen fundazio edo erakundeetan.

i) Hautespen bidezko edozein kargu politiko dutenak Europar Batasuneko, Estatuko, autonomia erkidegoetako edo Nafarroako Foru Komunitateko edo tokiko erakundeetan.

j) Goi kargua dutenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, Estatuko Administrazio Orokorrean, Toki Administrazioan edo horiekiko lotura edo menpekotasuna duten sektore publiko entitateetan, zuzenbide publikokoak nahiz pribatukoak izan.

k) Betearazpen edo zuzendaritza kargua dutenak alderdi politiko, enpresa elkarte edo sindikatu batean.

Arau honetako g), i), j) eta k) letretan adierazitako bateraezintasunak mantendu egingen dira kasuko lotura edo zerrendaturiko karguetako edozeinetako kargudun-izaera bertan behera gelditzen den egunaren ondoko bi urteetan.

4. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak gehienez bost hautagai aurkeztu ahalko dituzte; horietatik hiru sexu batekoak izanen dira, eta bi beste sexukoa.

Hautagaitzak aurkezteko, talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak idazki bat helaraziko diote Legebiltzarreko Mahaiari, non

jasota ageriko baita hautagaien onarpena, Zenbait fundazioren zuzendaritza organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legean eta Fundazioren estatutuetan ezarritako baldintzen betetzeari buruzko haien adierazpena, arestian aipaturiko inongo bateraezintasunik edo debekurik ez izatea, eta hautagaiaren profil-txosten bat bere ospe profesionala, jakintza eta esperientzia egiaztatuko duena.

Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak Patronatuko kide izateko hautagaiak aurkezteko epea 2022ko maiatzaren 5eko 17:30ean bukatuko da.

Hautagaitzak aurkezteko epea bukatuta, Mahaiak haiek kalifikatu eta aldarrikatuko ditu.

5. Patronatuko bost kideen hautaketa Legebiltzarreko Osoko Bilkuran egingen da, bozketa isilpekoaren bidez.

Bozketa txartelen bidez egingen da, eta foru parlamentari bakoitzak gehienez hiru izen jartzen ahalko du txartelean, horietatik bi sexu batekoak izanen dira, eta bat beste sexukoa.

Mahaiak boto-kontaketa egingen du, eta boto gehien eskuratu dituzten bost hautagaiak hautatu direla aldarrikatuko du.

6. Hautaketan eragina izan dezaketen balizko berdinketak ebatziko dira boto kopuru bera lortu duten hautagaien arteko bigarren bozketa baten bidez. Berdinketak bere horretan badirau, boto-kopuru bera duten hautagaien arteko hirugarren bozketa bat egingen da; eta berriro ere berdinketa gertatuz gero, hautaketa-prozedura amaitu dela deklaratu da eta prozedura berri bati ekinen zaio, hautatzeke gelditu diren postu hutsetarako”.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

